

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresan, mota eta adin guztietako bezeroentzat sortzen dugu balioa: gazteentzat, helduentzat edota adinekoentzat.

Gure bezero potentzialaren perfila ondorengoa da:

- mugikortasun arazoak dituenak.
- naturarekiko arduratsua dena, jasangarritasuna helburu duena.
- erosotasuna bilatzen duena.
- bizimodu aktibo bat duena.
- 20 eta 60 urte bitarteko dituenak.

Zurezko bizikleta motordunak gustukoak dira hirian eta aisialdian erabili nahi dituzten pertsonentzat, estiloa eta ingurumenarekiko errespetua bilatzen dutenentzat.

Halaber, diseinu berezia eta kalitatea baloratzen dituzten txirrindulariak, eta produktu ekologikoak nahiago dituzten pertsonak ere erakartzen ditugu.



Gainera, aproposak dira paseatzeko, bildumazaleentzat eta mugikortasun jasangarria eta berezia nahi dutenentzat.

Gure merkatu segmentu garrantzitsuenetako bezeroek ondorengo ezaugarriak dituzte:

- **Hiriko erabiltzaileak:** Eguneroko joan-etorrietarako bizikleta erabiltzen dutenak, eta estilo polit eta naturala bilatzen dituztenak, trafiko eta aparkaleku arazoak saihestuz.
- **Diseinua gustuko dutenak:** Bizikleta bereziak, kalitate onekoak eta istorio propioa duten markak estimatzen dituztenak.
- **Pertsona ekologikoak:** Ingurumena zaindu nahi duten eta produktu jasangarriak aukeratzen dituztenak.
- **Aisialdirako erabiltzaileak:** Paseatzeko edo asteburuan erabiltzeko bizikleta eroso eta dotoreak nahi dituztenak.

- **Bildumazaleak:** Bizikleta eskusiboak edo pertsonalizatuak gustuko dituztenak.
- **Vintage erabiltzaileak:** Estilo klasikoa eta izaera berezia duten bizikletak gustuko dituzten pertsonak, diseinu dotore, bitxiak eta zainduak baloratzen dituztenak.
- **Fatbike erabiltzaileak:** Lur mota ezberdinak menderatu nahi dituzten erabiltzaileak, egonkortasun eta trakzio handia eskatzen dutenak.